



DSS2016.EU



ARDORA LAN TALDEA:

Energia Olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

2015-11-23, AZAROKO SAIOA. 2.016€ko KATEGORIA

SAIOAREN HELBURUAK:

- ▶ **Urrian zehar, 2016€ko kategoriarako jasotako proiektuen artean hausnarketa eta esleipen ariketa egin talde lanean.**
- ▶ **Hautatuko proiektuen onarpena.**
- ▶ **Balorazioak: egunekoa.**

PARTAIDEAK:

- **2016 BULEGOTIK:** Mikel Goñi Energia Olatuak programaren arduraduna; Enara Garcia, Partaidetza Zuzendaria.
- **ARDORA LAN TALDEA:** 7 partaide (Ardora 1 eta Ardora 2 Lan taldekoak), 5 emakumezkoak eta 2 gizonezkoak.
- **AZTIKER DINAMIZAZIOA:** Maitane Barrenetxea eta Markel Ormazabal.



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

1. SARRERA ETA SAIOAREN KOKAPENA

Saioaren helburuak kokatu dira Ardora lan taldearen funtzio zehatzen baitan, eta zehazki, Energia Olatuak programara urrian zehar aurkeztu diren proiektuen esleipena kategorია bakarraren arabera:

-2.016€ko 5 proiektu

Sarrera gisan, aipatzen da ere Ardora 1 eta Ardora 2 Lan taldeetako lagunak deituak izan direla hil honetan bi kategorien artean, 2.016 eta 20.160 euroko laguntzak jasotzeko alegia, 110 proiektuetatik gora aztertu behar direlako, eta ezinezkotzat edo oso gogortzat jotzen da horien irakurketa egitea eta gerora talde lanean denak aztertzea. Hori dela eta, bi kategorien arabera lan saioak bereiztu egingo dira azaroan:

- 2.016€ kategoriari dagozkion 5 proiektuak ARDORA 1 eta ARDORA 2 Lan taldeetako lagunek aztertu eta esleituko dituzte.
- 20.160€ko kategoriari dagokion proiektua ARDORA 3 Lan taldeak aztertu eta esleituko du.

Horrela, akta hau 2.016 kategoriari dagokio, eta 20.160 kategoriaren lanketak beste aparteko akta izango duela argitzen da.

Saioaren hasierako azalpenak eman ondoren, eguneko talde lanari ekin zaio.

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

2. HAUTAKETAK EGITEKO LAN DINAMIKAK

Orain arteko lan dinamikaren iraupena hobetze arren, eta azken taldeetan egin den bezala, balorazioaren ariketa egokitu da:

- Lan talde bakarrean baloratuko dira 42 proiektuak
- Etxerako-lan bezala, parte hartzaile bakoitzak irizpideen balorazioa egin du; dinamika kuantitatiboa.
- Soilik totalak konpartituko dira, eta totalen gainean egingo dira hurrengo balorazioak.
- Balorazio kualitatiboa egiteko 42 proiektuak hartuko dira kontuan, eta horien gainean egingo da hautapen kualitatiboa.

Taularen gainean, eta partaide bakoitzak fitxa eskuan duelarik, ariketari ekin zaio. Konpartitutako totalen arabera, emaitza kuantitatiboa behatu da, eta balorazio altuenak dituzten proiektuak errepasatu dira. Bide batez, proiekturen bat berriro irakurri edo errepasatzeko tartea zabaldu da, baita zalantza edo dudak azaltzeko ere. Segidan, partaide bakoitzak bere bost gometza banatu ditu gustukoa eta nahi izan dituen proiektuen gainean. Ariketak eginik, jarraian azaltzen da sorturiko emaitza:



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

Partaideek euren gometzak jarrita, 10 proiektu izan dira balorazio altuenak jaso dituztenak. Gometza berdeen bidez aipamena jaso duten proiektuak ikus daitezke gaineko taulan. Hamar horietatik bost hautatzeko desadostasunak medio, bigarren gometza bat ipini dute partaideek, urdina kasu honetan. Bigarren dinamika honek arlo kualitatiboa gehiago argitu eta 5 proiekturen gaineko adostasuna aurkitu da. Beraz, bi balorazio horiek eginik, eta ordena zehatzik gabe, honako proiektuak izendatzen dira **2.016€ko diru-laguntza jasotzeko:**

- ▶ **KODEA 499: Jolas Tour.**
- ▶ **KODEA 501: Donostikat.**
- ▶ **KODEA 508: Pieza Audiovisual sobre personas sin hogar.**
- ▶ **KODEA 494: Euskal Herria. Caminos de Libertad.**
- ▶ **KODEA 539: Irutxulo Antiguu Balfok.**

Bost horiek izendatzeaz gainera, beste hiru proiektu hautatu behar dira ordezeko gisa. Ordezkoek bai izan behar dute ordena zehatza. Horretarako, zehaztu dira zeintzuk izan daitezkeen hautagaiak, zehazki, bi irizpide hautakoren bat betetzen duena:

- Puntuazio altua edota positiboa jaso dutenak
- Gometza kopuruan esleitutako proiektuen jarraian agertu direnak.

Lehendabiziko bost proiektuak hautatuta, gometza berdea jaso eta hautatutako bost proiektuetan sartu ez direnen artean, ordezekoak izango direnak aukeratu dira. Horrela, jarraian azaltzen direnak dira, eta ordena horren arabera, esleitzen diren ordezeko proiektuak:

- ▶ 1. Ordezkoa= 502 KODEA: **GIPUZKOA88**
- ▶ 2. Ordezkoa= 479 KODEA: **SAUNA IBILTARIA**
- ▶ 3. Ordezkoa= 480 KODEA: **TXALAPARTA OLA DE ENERGIA**

Beraz, hiru horiek eta ordena horretan izendatzen dira, eta aurreko proiekturen bat erretiratuko balitz, horiek izendatuko dira.



ARDORA LAN TALDEA:




Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015



3. BALORAZIOA:

Berriro ere partaide denei eskatu zaie saioaren balorazioari dagokion galdetegi betetzea:

- SAIOari dagokiona, hots, 2015-11-23 dataren saiokoa, 2.016€KO KATEGORIA.

Honetaz gain, gaurko saio baloratzeko ere eskatu zaie ohiko koloretako txartelak erabiliz:

	Saioa ez zait batera gustatu, ez dut ikasi, ez informazioa jaso. Metodologia ere ez zait oso egokia iruditu. Orokorrean sentrazio ezkorra dut.
	Besterik gabeko saioa izan da, informazioa jaso dut baina zalantza askorekin. Gehiegi ez dut ikasi eta metodologia besterik gabekoa izan da. Orokorrean sentrazio epela dut.
	Saioa egokia izan da, ikasi dut eta informazioa jaso dut. Metodologia egokia izan da eta sentrazio onarekin noa.

Hiru kategori horien arabera denek, bi parte hartzailek salbu, hautatu dute **itsas argi berdea** = . Beste bi parte hartzailek, esan bezala, **itsas argi horia** =  aukeratu dute

Galdetegi betetzeaz gain, honako balorazioak eta komentarioak konpartitu dira:

- ✓ Dinamika kualitatiboa egiterakoan, eta dinamizaziotik dinamikaren zergatia eta mekanika ez bir-gogoraztearen ondorio, kriterio ezberdinak erabili dituzte parte hartzaileek. Hau da, zenbaketa edo emaitza numerikoa ez erreparatu eta parte hartzaileek **gogoko dituzten proiektuak aukeratu beharrean**, gogokoak bai baina puntuazio txikiagoak jaso dituztenak hautatu dira hauei aukera gehiago emate aldera. Ondorioz, bi ariketen ondorio den oreka bilatzea zaila izan da.
- ✓ Dinamika beraren hasieran, halaber, adierazi da bost gometza gutxi direla 42 proiekturen artean aukeraketa egiteko.



- ✓ Parte hartzailetariko batek adierazi du, faltan bota duela dinamika kuantitatiboa taldean ez egin izana (etxeko lan modura ekarri dituzte eginak zenbaketak). Ariketa ez egiterakoan, faltan izan du ikustea eta ulertzea taldekideek proiektu bakoitzean DSS2016ko zein oinarri baloratzen duten gehien.
- ✓ Saioan zehar emandako eztabidak, proiektuak aukeratzeko orduan suertatu diren korapiloak askatzea asko ostatu dela adierazi du beste parte hartzailetariko batek. Ondorioz, saioa momentu batzuetan astuna egin zaiola esan du.
- ✓ Guztiak azaldu dira prest ondorengo saioetan errefortzua behar izatekotan berriro ere parte hartzeko.

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

4. AGURRA ETA HURRENGO BATERAKO AUKERA IREKITA UZTEA

Bilera amaitu aurretik, berriro ere azaroan ospatuko den diru-laguntzen esleipenerako deialdi berezian parte hartzeko gonbita egin zaie ARDORA 1 zein ARDORA 2 Lan Taldeetako kideei. Horretarako, bi kategorietako proiektuak esleitu beharko dituztenez, etxeko lan gisa bidaliko zaizkie kategoria bakoitzera aurkeztu diren proiektuen balorazio kuantitatiboa.

Saioan parte hartu izana, eskainitako denbora eta emandako guztia asko eskertuz, bilera amaitutzat eman da iluntzeko 20'30etan.

Donostian, 2015eko azaroaren 16an.